


# URRUZUNO



SENDIA

Jesus Mari Etxezarreta



TXIRRITA  Sails





# PEDRO MIGUEL URRUZUNO SALEGI

Umorezko ipuin hautatuak

Jesus M<sup>a</sup> Etxezarreta

Marrazkilaria: Mikel Casal

© Jesus M<sup>a</sup> Etxezarreta  
© Sendoa

L.G.: NA. 1.300-1999  
ISBN: 84-89080-89-5

Sendoa  
Ugaldetxo  
20180 Oiartzun  
Tel. 943 493 551 /2/3  
Fax 943 493 548

[www.sendoa.com](http://www.sendoa.com)  
[editorial@sendoa.com](mailto:editorial@sendoa.com)

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L.



SENDOA

*Eskerrak bihotz barrendik nere seme-  
alabei Miren eta Joni aukeratzerakoan  
eta ordenagailuan idazterakoan eman di-  
daten laguntzarengatik.*

*Eta, Aita Zabalarri, bere "Auspoa" sai-  
leko liburuak, borondate onenarekin utzi  
dizkidalako, eta liburuxka honen oinarri  
direlako.*

*Pedro Miguel Urruzunoren bizitza eta  
ipuinak laburtu eta aukeratzerakoan eragoz-  
pen askorekin aurkitu naiz eta irakurleak  
hobeto uler dezan, ohar batzuk jarri beharre-  
an aurkitzen naiz.*

### **Oharrak:**

**1.** Gaztetxoentzako liburuxka txiki baten  
ezin sartu bere ipuin denak eta bakar ba-  
tzuk aukeratu beharra.

**2.** Ezagutzen diren bere bost liburuak az-  
tertu ditut ipuin politenak argitaratzeko.

Liburu hauek dira:

"Urruzunotar P.M.en ipuiak. Iruña 1930"

"Euskalerritik zerura" Auspoa liburutegia  
5 zka.

"Iru ziri" Auspoa 47 zka.

"Ur-zale baten ipuiak" Auspoa 51 zka.

"Sasi-letrau baten ziria" Auspoa 113 zka.

**3.** Euskera batura pasatzerakoan zailta-  
sun handiak.

- Jatorrizko ortografia ezin errespetatu.
- Erderakadak dauden bezela pasatu behar.
- Bertsoak ere errespetatu egin behar silabei dagokienean.
- Ironiazko hitzak dauden bezela utzi behar
- Eta horrelako mila arazo. Beraz, irakurleek, barkatu beharko didate asmatu ez badut.

4. Bere ipuinen egitura: gehienak egitura berdina dute.

Parregarrizko gertaera bat aukeratzen du, bi edo hiru pertsonaien arteko *elkar hizketa* irrigarrizkoa eta amaiera, "moraleja" batekin bertso bat edo biren bitartez D. Juan Manuel erderazko idazleak egin zuen antzera.

5. Urruzunoren ipuinak bere kontextuan ulertu behar dira. Bera apaiza zenez, erlijio

mundua defendatzen du, bere garaiko etika edo portaera estu eta zehatza.

Pertsonaiak eta gertaerak ere ez dira gaur egunekoak: ijitoak, neska eta mutilzaharrak, apaiza eta sakristaua, konfesioak, Donostira lehenengo bixita trenean eta abar.

Bere helburua da: erligioa zabaldu eta euskera, bere hizkuntza kuttuna suspertu. Ikusi zazue nola dion:

"Bakoitzak bereari kontu haundiz eutsi hostu nahi badigute ez behingoan etsi, gure etsai gaiztoek bihar edo etzi larrugorri bizian ez gaitzaten utzi".

Bera hain gizon zehatza eta beltzez jantzia izan arren, umorea eta irria zabaldu besterik ez zuen egin bere bizitza guzian.

Gaurko egunean ere doai eder honen beharrean aurkitzen gara eta gaztetxoei ere ongi etorriko zaie umore eta ironia sano hori bereganatzea.

**6-** Ipuin asmatzaile izugarria izan zen. Eguneroko gertaerei beti asmatzen zien alderdi irrigarriren bat eta ipuin sorta izugarri aberatsa idatzi zuen, bere denborako aldizkarietan argitaratzen zituenak, honela "Euskal-Erria", "Euskaltzale", "Ibaizabal", "Euskal - Esnalea", "Baserritarra", "Jesusen Biotzaren Deya", "Zeruko Argia", "Argia" eta idazterako orduan, bere lanak honako izen-goitiez izenpetzen zituen: "Ur-zale bat", "Urruzuno-ko Pedro Miguel", "P.M.", "Neska zarren lagun bat"...

Hamaika bertso eder ere tartekatu zituen bere idatzietan, herriak buruz ikasiaz. Neronek nere amari "Neska zarren bertsoak" askotan aditu nizkion, orduan Urruzunorenak zirela ez nekien arren. Beraz, jende xumearen artean izugarrizko arrakasta izan zuen.

**7-** Euskara aldetik, berak esaten digu ez duela intelektualentzako idazten, ez eta garbizaleentzako ere, baizik eta, berak euskara herrikoia eta elkarrizketan ibiltzen den euskera erabiltzen duela, maila kolokiala. Beraz, gaztetxoentzako mesedegarria izan daiteke, hizkuntza xumea eta bor-borka darion hizkuntza gozoa erabiltzea.

Besterik gabe, bere bizitzako gertaera eta datuen laburpena emango dizuet ondoren.

## **Pedro Miguel Urruzunoren bizitza**

(Datu gehiegi ere ez ditugu baina bere bizitzako pausorik garrantzitsuenak bai.)

Elgoibarren jaio zen 1844ko apirilaren 29an. Bere jaiotetxea Arrabaleko kalean zegoen, 110.ean.

Bere gurasoak elgoibartarrak ziren: Juan Bautista, errementaria, eta Manuela, etxeakoandrea. Jatorriz ere, aitona bat ezik, zeharo elgoibartarra zen: aitaren aldeko aitona-amonak elgoibartarrak ziren: Miguel Urruzuno eta Lorenza Crucelegui; amaren aldekoak berriz, aitona Francisco Salegui, Astigarribikoa (Mutriku) eta amona Josefa Antonia Muguerza, Elgoibarkoa.

Ohitura zenez, umetan bere herriko eskolara joan zen eta gaztetan denbora aldirien bat Nafarroako Lesakan igaro zuen, bere ipuin batzuk Nafarroako herri hori dutelarik gerta-tokitzat eta Pedro Miguel, badirudi, bertantxe aurkitzen zela.

Ez dakigu ziur apaiz-ikasketak non egin zituen, baina Pedro Miguel 1870.urte-

an apaiz egin zen eta bere lehenengo plaza, Elgoibarren bertan eman zioten, eritegian, kapelau eta laister Elgoibarko erretore egin zuten. Baina ia bere bizitza guztia, Mendaron, Garagarza auzoan, eman zuen, lehenengo erretore bezala eta gero, Mendaroko moja Agustinetan kapelau.

Jesuita izateko gogoia ere izan zuen eta Loiolan sartu eta urte bete inguru pasatu ere bai, baina osasunak ez zion laguntzen eta utzi egin behar izan zuen. Beranduago, Euskaltzaindiko partaide izendatu zuten.

Mendaron bertan hil zen 1923.go apirilaren 14an.

## **2. Bere bizitzako bitxikeriak**

Jose M<sup>a</sup> Etxaniz Urruzunok, bere ilobak, osaba nolakoa zen adierazten digu "Izu ziri" liburuaren hitzaurrean eta bere izakera eredugarria izan daiteke edonorentzat.

D.Pedro Miguel, guretzat, herritarrontzat, beti izan zen apaiz ona eta lagun ho-

bea. Diotenez, ez zen sermoilari ona baina bai idazle trebea. Osasunez, eskasa. Oso gutxi jaten omen zuen eta bere baratzako sagar eta madariak beti besterentzako. Etxekoandrea, Praixka Antoni, beti errietan ari zitzaion gutxi jaten zuelako: -“Jauna, berori bere buruaren kaltean dabil. Ez du jaten. Dena inori eman. Jan beza, ba , Jainkoak agintzen duen bezala! -Ez ezazu alferrik jardun. Zure errietak eta nire sermoiak biak berdin-berdinak dira: baterez! Ezertarako ez dute balio!

Mojatxoak asko maite zituen, baita heurak ere bera.

Musika zalea zen eta elizkizun ikusgarriak egiten zituen. Eliz-kantak, gabon-agurrak, bere bertsoak beti kantatzen ibiltzen zen.

Langile burukatua, umore paregabe-koa eta gizon on eta burutsua zen Pedro Miguel. Beti kontseju onak ematen eta umorea bizitzari ezartzen. Zer nahi dugu gehiago! Ikusi Iriondotar Toribiok urre-ez-tietan (1920-X-2) bota zizkion bertsoak:

“Ume umetatikan“  
zure bihotz dana  
Jainkoari zendukan  
oparo emana:  
Elgoibar ta Lesakan  
ezagun zinana,  
apaiz eginik igo  
zinen Jesusgana.

Lehen eritegian  
gaixoak zaindutzen,  
gero Txadon handian  
arimak argitzen:  
Elgoibartik zinela  
Mendarora aldatzen,  
abelge ta aberatsak,  
dituzu laguntzen.”

“Liburu txit ederrak“  
dituzu idatzi,  
donokiro duzula  
bidea erakutsi;  
olerki alaitsu xauak  
jarririk egoki,  
Jesusen Bihotz eta  
ama maiteari.

Ipuin politik  
idatzi dituzu,  
hamaika barre gozo  
eragin diguzu:  
Patxi Motzen larriak  
esan dizkiguzu,  
triste geundenean zuk  
”Pozkida gaituzu”.



## Pillosopo baten pillosopokeriak

**A**nton, zer berri?

-Berririk ezer ere ez eguzkiaren azpian.

-Hola! Hori pillosopia baino gehiago dela uste dut, teologia ere izango da hori.

-Dena dela: nere iritzia esan dizut.

-Eta, zenbat urte dituzu?

-Ez dakit.

-Ez dakizula? Ez zaude pillosopo txarra.

-Zedorrek diozu ba dena; pillosopia, teologia eta nik ez dakit zer gehiago.

-Ez zidazun esan lehengo egun batean 1834-garren urtean jaio zinela?

-Hola esan zidan erretore jaunak.

-Beraz 74 urte dituzu.

-Ez dut uste.

-Gizon! 1834-tik 1908-ra 74 urte dauca.

-Hala uste dut; handik honera 74 urte igaro direla.

-Beraz hoiek dira zuk dauzkazun urteak.

-Ez da, ez da.

-Zer ba?

-Urte hoiek, benepein 73 joan ziren, behin ere ez bihurtzeko, eta 74-garrena ere gehiensuena bai, eta horregatik ez dut uste nik 74 urte ditudanik.

-Hoiek dira zure pillosopokeriak.

-Hoiek dira nere iritziak.

-Beraz, 73 urtek ihes egin dizute benepein.

-Hala uste dut.

-Berrehunek ere ihes egingo dizute zuri horrela bizi bazara.

-Bizi banaiz, bai alegia, hirureunek ere.

-Zer egingo zenuke berrehun urte igarotzera helduko bazina?

-Ernioko mendiaren tontorrera joan.

-Bakartasunera?

-Lagunak ere bilduko nituzke.

-Bai ote?

-Bai, bai. Anton Abad santuaren Ejiptoko basamortuak bete ziren lez, Ernioko mendia beteko litzake gizonez.

-Nola ordea?

-Asko nuke Euskal-Esnaleari esatea: "Adiskidea, hemen nago ni oraindik sasoi-rik onenean berrehun urte igarota"

-Sermoi txikitxoa iruditzen zait hori gizatalde haundia Erniora inguratzeko.

-Horixe bakarrik litzake asko. Euskal Esnaleak esango luke, albistari guziek banatuko lukete berri hau, eta lurbira guzitik laster abituko lirake gizataldeak Erniora.

-Zu ikustera?

-Bai, ni ikustera, baina ez ni ikustea-gatik.

-Zergatik ba?

-Nik zer jan, zer edan eta zer beste gauzik egiten dedan jakiteagatik.

-Zertako?

-Berak ere beste hainbeste egin, eta bizia luzatzeko.

-Asko etorriko ote lirake?

-Bai: hil nahi ez duten gazteak, bizi nahi duten zaharrak, eta hala; batez ere aberatsak.

-Hobe zenduke hortarako Donostian, Tolosan edo beste horrelako herri batean bizi.

-Ez, ez: Ernion.

-Zergatik ba ?

-Herri hoietakoren batean jarriko banintz, bizia, luzatu beharrean, laburtu egingo nieke.

-Nola ba ?

-Hasiko lirateke automobil edo traste hoiek alkarren lehian arrapaka, eta batak bestea burukatuz, hilak eta tortila eginda geldituko lirateke, eta horrelako gauzik ez dugu behar.

-Eta Erniora ezin igo automobilik.

-Horrengatik ba..!

-Eta zer aginduko zenieke bizia luza-  
tzeko? Taloa eta esnea?

-Ez, ez: Taloa eta esnea ez daude  
Ernion bakarrik, baita beste toki askotan  
ere. Nik esango nieke, heurak nahi dutena  
jan eta edan egiteko, baina Ernioko haizeak  
hartzeko.

-Horrela laster beteko zenuke Ernio  
guzia.

-Bai, jauregi eta ostatu ederrik egingo  
litzake Ernion.

-Egiptoko eremuetan hainbat peniten-  
tzi egingo ote litzake..?

-Jauregi eta ostatuak ez dut uste toki-  
rik onenak direnik penitentzia egiteko.

-Urteak esango dute.

-Bizi bagera.

-Eta bizi ez bagera ?

-Bizi direnak irakurriko dute hilerriren  
bateko hilobi baten gainean honela idatzita:

Pillosopo bat bere  
ustean abila,  
hemen dago lurpean  
nahi baino lehen hila;  
gauz onez aspertuta  
hobearen bila  
zebilena zeruan  
gertatu dedila.

"Euskal-Esnalea" 1909, Urtarrilaren 15-an.



## 2

**Prailea eta Don Burno**

## I

**D**on Burno, bere ustez, gizon arrazoizkoa zen, antiklerikaltxo bai, baina horretan ere bazituen bere arrazoiak.

Praileak noizean behin eskatu ohi zion mandoa Don Burnori, eta, gogo onez ez bazen ere, ematen zion ibilaldiren bat egiteko.

“Praileek hitz onak baino..” Hau zen Don Burnok beti bere ahoan zeukan esaira, eta herri guziak ikasi zion.

Jaun honek agindu zion egun batean bere morroiari, Praile-jantzita, eman zegiola astindu on bat makilaz, praileenganako gorrotoa mandoari sartzeko, eta hala egin zuen morroiak.

Egun batean, Prai Manuel, lego gizaria, joan zen mandoaren eske, beti bezela, eta Don Burnok agindu zion, okulutik hartu zezala. Bazihoan hartzera, baina mandoa, prailea ikusteaz bat, hasi zen ostikoka, hurreratzen ere utzi gabe praileari, eta mando gabe bihurtu zen etxera, esanaz: “Don Burnok mandoa antiklerikaldu zuela”.

## II

Don Burno bazihoan guziz apain bere mandoaren gainean, eta praile-etxearen aurrean igarotzean, atera zen praile bat komentutik, eta hura ikustean, mandoa oso izutu zen eta hasi zen lasterka eta saltoka, jo bazter bat eta jo bestea, txapela kaleko parol batean katiatu zitzaion, estalkia edo kapotia uretara, pipa, betaurrekoak, euritakoa hor-hemen banatu, ate-buru bat buruaz jo, eta azkenik lurrera eroririk, korderik gabe gelditu zen.

## III

Jaso zuten komentura fraileek eta Prai Manuel han ari zitzaion, Ebanjelioko Samaritarraren antzera, ardo eta olio bere zauriak garbitu eta gozitzen; jendea ere bildu zen, eta sumatu zuten, Prai Manuelek zerbait mur...mur...mur... ahopean esaten zuela. Oleazio Santua ote zen? Baina ...Nola? Prai Manuel legoa da eta azken igurtzirik ezin eman? Beste otoitzen bat izango zen. Bai, hara zer esaten zuen: "Praileak hitz onak baina...Praileak hitz onak baina..."

-Obrak ere bai- erantzun zion halako batean Don Burnok.

## IV

Eraman zuten Jaun hau bere etxera eta biharamonean nolabait ere esku bat jakaren sakelean sartzean, aurkitu zuen papertxo bat honela zioena:

Konsejuren bat eman  
baino lehen inori,  
kontu nola gelditu  
zindezken zedori;  
ez zaitezten kontuan  
berandu erori,  
gaitz egin diozula  
zeure buruari.

Guzion begietan  
orain da azaldu,  
nola mandoa dezun  
antiklerikaldu;  
berriz bota ez zaitzan  
eta oso galdu,  
hobe duzu mandoa  
lehenbaitlehen saldu.

Don Burnok saldu zuen mandoa eta erosi zuen beste bat. Prai Manuelek bere esku zeukan mando hau, eta biak oso adiskideak izan ziren eta hala izan ditezela urte on askoz.

("Euskal-Esnalea" 1912)


## Gabon-gau bateko oroipenak

**A**i! Hura eguna eta hura gaua...! Karlos bostgarrenaren guda, edo Karlos kintoren gerratea zen.

Gipuzkoako bigarren batailoeko konpagnian batzuek geunden Lesakan (Nafarroan), elurra kanpoan eta gosea barruan genituela.

Agintzen digu kapitainak zortzi soldaduri, jarraitzeko kabo bati eta haren esana egiteko. Arratsalde erdian bagoaz errekaondo batean aurrera eta aurrera. "Hauxe duk hauxe-esaten genion soldaduak elkarri-gabon gaua, gosez, onutsik elurretan, nora eta zertara goazen ez dakigula",

Halako batean "alto" egin genion kabolari.



-Zer duzue mutilak? Galdetu zigun berak.

-Ez dugula oinkada bat ere gehiago eman nahi, jakin gabe nora eta zertara goazen-erantzun genion.

-Irungo baserri batean zeudek Muñagorriren mutil batzuek eta haiek harrapatzera goazik-esan zigun kaboak.

Eta...ez degu ezer jatekorik?

-Nonbait ere zerbait bilatuko al diagu.

Sartzen gera lehenengo aurkitzen dugun baserrian eta artirina beste jatekorik ez genuen aurkitu.

Hala ere talo mordo bat egin, jan eta zerbait ase eta bete ginenean, ez baserri batean, baizik gaztelu batean sartzeko ere prest ginen.

-Aurrera ba, mutilak!

Hurreratzen gera beste baserri batera, eta bazen hantxe soinu, eresi eta kantu, dantza eta zarata. Agintzen digu kaboak jartzeko zortzi soldaduok etxe-inguruan, baio-

netak kalaturik, eta sartzen da bera etxe barrura, bada Irundarra eta hango berri ondo zekiena zen. Laster ixildu ziren hango soinuak eta hasi zen jendea lehioetatik saltaka.

Gau oso ilun-iluna zen, eta elurraren zurtasunak zerbait argitzen bazuen ere, etxe inguruan zeuden zuhaitz edo arbolak nahikoa ilun egiten zuten.

Harrapatu genituen bi Muñagorritar, baina baita ere zauritu edo eritu genuen geurotako bat, itxumustuan edo ilunpetan, harrapataka hartan, Muñagorritarra zela-koan. Eta badakizue nola eraman behar izan nuen Lesakaraino bi hoietako bat, hiru ordu bidean? Lepazamarretik eskuz helduta. Ikasle edo estudiantea omen zen, Ituindarra, hau da, Ituren deitzen den Nafarroako herri batekoa; gizaseme gazte asko-asko ederragorik ikusi ere ezin daiteken bezelakoa. Zein pozik libre utziko nion nere eskuan egon balitz uztea, halako errukia ematen zidan gizaseme gazte hark! Baina ez zegoen nigan.

Azaldu zen Lesakara emakume ondo jantzitako bat, Ituindarraren Ama, egin zituen aleginak bere semea libratzeko, baina denak alperrik.

Handik egun gutxiren buruan, ai! Ez nuke esan nahi, baina, zergatik ez? Ai! Guda, guda, zorigaiztoko guda..! Afusilatua izan zen..!

Igaro dira berrogeita hamazazpiren bat urte, baino handik honerako gabon-gau guztietan oroipen honek ekarri ohi dizkit bihotzera samintasuna, begietara malkoak eta mingainera erregu bat Ituindar estu-diante haren animagatik.

Martinek 1894-an.





## Ijitoen dibortzioa

### I

izazu Santi.

-Zer nahi zenuke Diburtzio?

-Zuk onezkero badakizu legeen berri.

-Bai, gure Patriarka zaharrak adina benepein.

-Hargatik nator ba zuregana.

-Zer gertatzen zaizu ba, gizona?

-Emaztearekin nabil okertxo.

-Hori besterik ez bada, erremedio erreza dezu. Ibili zait zuzen.

-Errez al da?

-Ardoa merke badago...ez da hain erreza ere, baina posible...bai.

-Eta ni zuzen ibilita ere, hura zuzen ez badabil?

-Zein da hura!

-Nere uztarri-laguna.

-Urrepiña? (Rufina)

-Bai.

-Bamos...bai; baina uztarriko idi bat zuzen ez badabil, bestea nola ibiliko da?

-Ez dago akulurik?

-Akulukadak berak ematen ditu hark.

-Urrepiñak?

-Bai, Jauna, bai: urre pin-piñak

-Nola ordea?

-Atzo esan zidan bera bazala bere izenaren jabe, baina ni "Ez izan eta ez izango" nere izenaren jabe. Nik ez dakidala nere izenaren "sinipikantza", baina haren izenarena mundu guziak zekiala eta guzien gogokoa dela, ¿Errechupleta! *Ke le parese a uste pues?* Esan eta lotsaturik utzi ninduen.

-Eta ez dakizu zuk, "dibortzio" zer den?

-Ez ba Jauna, ez; eta horixe aurpegira botatzen dit eta lotsatu egiten nau.

–“Diborzio” da senar-emazteak elkarrengandik apartatzea.

–Hori baino ez da?

–Ez.

–Eta hala ere ez naizela izenaren jabe, zazpi aldiz andreangandik apartatuta.

–Zazpi andre utzi dituzu?

–Ez, bat zazpi aldiz.

–Urrepiña utzi duzu zazpi alditaraino?

–Bai, zazpi aldiz, *ni más ni menos*.

–Eta berriz ere berarekin elkartu?

–Baita.

–Beraz arrazoia du Urrepiñak, esatean, ez zerala zu izenaren jabe.

–Ez du ba maiz esango, “diborzioa” zer den erakutsiko diot nik ondo.

## II

–Hola, nere adiskide maiteok; hemen al zerate?

–Bai ba, Patriarka Jauna, hementxe gatoz.

–Zer berri Dibortzio?

–*Dibortziatu* egin nahi nuke.

–Eta zer diozu zuk Urrepiña?

–Urrepiñak nonnahi izango duela estimazioa Dibortziok baino hobea...

–Ondo dago, ondo dago, izango dezu premia.

## III

–Esan ezazu Dibortzio: zer motibo dezu dibortziatzeko?

–Asko, Jauna.

–Esan ezazu bat.

–Izenaren jabe egitea.

–Beste bat.

–Ez nauala maite nere emazteak txakur honetxek hainbat ere.

–Egia ote da hori, Urrepiña?

–Munduan den egirik haundiena, atzekoz aurrera. Berak ni adina, nik bera maite dut.

-Zer diozu Dibortzio?

-Probatuko diot esan dedana; hau da, ez nauala maite nere emazteak, txakur honek adina.

-Ia ba nola probatzen duzun.

-Deitu zion txakurrari Dibortziok, eta eman zion makilarekin jipoi haundi bat. Hala ere miaztu zizkion txakurrak nagusiarri eskuak eta aurpegia, mesede haundi bat egin bazion bezela.

-Ikusten du Patriarka, zenbat maite nauan txakurrak?

-Halaxe da - erantzun zuen Patriarkak.

-Betor ba orain, Urrepiña, jipoitxo bat hartu, eta txakurrak egin duena egitera.

-Eskerrikasko senartxo: "*ni tanpoko hurrik eman*". Orain nik hitzegin behar diot "*Patrakar zaharrari*".

-Egin ezaiozu ba.

-Patrakar Jauna; esan diot lehen, nik maite dedala senarra, berak ni adina. Txakur honek baino gehiago ez nau maite, eta probatuko diot.

-Ia ba, Urrepiña, ia nola portatzen zeran.

-Berealaxe, Jauna.

-Atarian zegoen putzu haundi bat, eta hango ura edaten zuten; han garbitzen zizutzen beren ontzi zahar guziak eta baita bainuak hartu ere.

"*Buska*"- esan zion txakurrari eta bota zuen putzura egur bat. Berehala joan zen txakurra ondoren, eta ekarri zion egurra, eta *asperges* bat ere eman zien inguruko guziei, bere gurputz bustia astinduaz.

-Egingo didazu, senar maitea, txakurrak egin duena? - esan zion Urrepiñak senarrari.

-Egingo nuke - erantzun zion- baina beste gauza bati begiratu behar zaio: ur gutxiegi dago putzu horretan nire bihotzaren zukanako amodioaren sua itzaltzeko. Sartuko banintz putzu horretan, uste dut berehala agortuko litzakela, eta gero? Kontuak izango lirake...

Erabaki zuten banantzea: hara belau-  
nikaturik *Patriarkaren* aurrean, eta hau  
ahopean mur...mur...mur zerbait esaten:  
*veinte años kasar, malpasar, ahora kas-*  
*kar-esanta, kisk kask*, jotzen zituen buruan  
senar-emazteak mailukatxo batekin: baina  
*operazio* luzetxo zihoan, eta hala, galdetu  
zioten *Patriarka* zaharrari:

-Noiz arte iraungo du *operazioak*?


-Bietatik bat hil arte.

-Gaurko nahikoa dugu Jauna, eta  
bihar etorriko gera berriz.

-Zoazte ba Jaungoikoarekin, eta bihar  
etorri nahi duzuenean.

Joan ziren, eta gaur arte ez da haien  
beste berririk, baizik *Kelmete* kutxaragileak  
ikusi zituela behin elkarrekin Donostiako  
zezen plazan.

1903ko Urriaren 5ean  
IBAIZABAL. 1903ko urriaren 11n.



## 5

## Hiru ziri

## Zirilo, Ziriako eta Zirikilote

## I. ZIRILO

A izazu, Praisko, zer izen da hori?

-Izena izango da.

-Baina Zirilok zer esan nahi du?

-Lo dagoen ziria izango da.

-Ez da ba horixe lotia, nik uste dedanez. Lo daudenak esnatzeko ona izan behar du.

-Beraz esnalea izango da.

-Hala uste dut.

-Baina, Euskal-Esnalea?

-Ez dut uste: *Señorito Zirilo* esaten diote eta.

-Ez da ba eskalea izango noski.

-Ez dakit; baina emaila ere ez du izan behar.

-Hartzailea ote da?

-Edo kentzailea.

-Beraz beraren kontuz ibili beharko dugu.

-Hobe izango da.

Aditu nionean  
gizon zahartxo bati,  
ez-ezagunangandik  
ibiltzeko urruti,  
hitz leunduna bazen  
oraindik hobeki,  
esan hori gogoan  
eduki det beti.

## II. ZIRIAKO

Hobe zukeen Ziriakok Praiskoren bertso hori ondo ikasi balu.

Uste zuen honek Zirilori ziri bat sartuko ziola, baina Zirilok sartu zion berari.

Lehenbiziko aldiz Kasinoan ikusi zuen Ziriakok Zirilo. Honek zeukan eskuetan, guziei erakutsiaz, zigarrontzi eder bat, urre eta perlaz apaindua zirudien, baina Zirilok esaten zien guziei, urre eta perla haiek ez zirela egiazkoak, baizik ezteraziak (fingidos).

Ziriakok begia laster ezarri zion zigarrontziari eta eskatu zion mesedez Zirilori, uzteko gau hartan berari, ondo ikusi nahi zuela eta.

Utzi zion Zirilok, eta azkar joan zen Ziriako Txanton zilargilearen etxera, zigarrontziak zenbat balio ote zezakean galdeztera. -Bost mila pezeta gutxienaz - esan zion zilargileak.

Egiazkoak ote dira urre eta perla hoiek? -galdetu zion Ziriakok zilargileari.

-Bai, bai: -erantzun zion zilargileak-horaintxe bertan emango dizkizut bost mila pezeta, saldu nahi badidazu.

-Ondo dago, esan zion Ziriakok, bihar agertuko naiz.

-Biharamon goizean bihurtu zion zigarrontzia Zirilori, eskerrak emanaz eta honek gorde egin zuen.

Iluntzean Kasinoan elkartu ziren bi ziriak, hau da, Zirilo eta Ziriako; han zebilen eskutik-eskura zigarrontzi hori, eta Ziriako, heldu zen mila pezeta beragatik Zirilori eskeintzera. Erantzun zion honek salduko ziola, baina ez zuela engainatu nahi, eta guzien aurrean esaten ziola urre eta perla haiek ezteraziak zirela. Hala eta guztiz ere Ziriakok eman zituen mila pezetak eta egin zen zigarrontziaren jabe.

-Berehala joan zen zilargilearen etxera bost mila pezeta hartzeko ustean zigarrontziarengatik, baina huraxe bai zela ziria! Huraxe bai adarra jotzea! Zigarrontzi hura ez zen aurreko egunekoa, gehienaz lau pezeta balio zituen.

-Zigarrontziaren barnean aurkitu zuen Ziriakok papertxo bat, esaten zuena:

Zu otsoa bazera  
ni naiz azeria,  
horra, ederki sartu  
dizudan ziria.

### III. ZIRIKILOTE

Ziriakok ixilik zeukan ustez bere ziria; Zirilo ezkutatu zen herritik, baina Zirikilotek guzia zekien.

-Ziriakok, ziri bat sartzeko ustean, saldu zion Zirikiloteri zigarrontzi eder hura ehun pezetan.

-Zirikilotek atera zuen nonbaitetik ere Ziriloren zigarrontzia zela hura eta baita aurkitu ere etxe eder batean.

-Bera zegoen alboko mahiean jarri zen Zirikilote: han zerabilten eskutik eskura zigarrontzi eder bat, noizean behin esaten zien Zirilok, ez zirela egiazkoak haren urre eta perlak, baizik ezteraziak.

-Heldu zen zigarrontzi hura Zirikiloten eskuetara, baina halabeharra zen guzia! Eskuan erristatu eta erori zitzaion magalean zeukan txapelera.

Laster atera eta ipini zuen mahai gainean...baina...ez hura...Zein ba? Ziriakori ehun pezetan erosi ziona, eta eskutik eskura han zerabilten aurrera ere prozesioan...!

-Zirikilotek saldu zion Txanton zilargileari bost mila pezetan zigarrontzi berria, eta itxu batek honela abesten zuen hurrengo egun batean:

Señorito Zirilo  
eta Ziriako,  
biak dira berdinak  
nola edo halako;  
baina Zirikilote  
hobea delako,  
bieri ziri onak  
sartu die bapo.

Euskal-Esnalea. 1909 Uztailak 15.



## Adar-jotzailea

### I

**A** izazu Erroke: Anton Drogas horretzek arrazoia baduela uste dut ba nik.

-Nik ere hala uste dut. Badakizu zergatik hala uste duzan? Batzuek diote gizonaren antzik haundiena duen animalia Anton Drogas dela, eta nik berriz diot, animalia-  
ren antzik haundien duen gizona dela Anton Drogas, eta gizona izatera ezkerro, arrazoia berekin du: horregatik uste dut arrazoia baduela.

-Ez dut hori esan nahi, Erroke.

-Zer esan nahi duzu ba, Praisko.

-Anton Drogas gizon itxurazkoa dela.



-Itxua baldin bada, nahiz erazkoa izan, nahiz ez, erruki dut.

-Ez dut esan "itxu-erazkoa", baizik itxurazkoa.

-A! Bai. Ez da itxura gabeko gizonik eta ez emakumerik.

-Gizonezkoezaz ixiltzen naiz, baino emakumeak? Hirutatik bi-terdi bai gutxienez.

-Nahiko nuke bat ezagutu.

-Horra hor, Malen Katre.

-Zure andregai?

-Izandua.

-Orain ez al da?

-Ez, orain ez da; ez eta izango ere santsukuan.

-Emakume hori dela diozu itxura gabea?

-Horixe berbera, bat beinepein.

-Ez zenion ba, lehengo egun batean zedorrek kalean, ahoa betean, dehadar egin esanaz: "*itxura de mala mujer*".

-Eta zer dugu horrekin?

-Hark ere baduela bere itxura; ez dela emakume itxura (on edo txar) gabekorik; eta gutxiago zuk diozunez, gizonik; eta horregatik Drogasek ere izango du bere itxura, ona edo txarra, batez ere izenaren jabe bada.

-Ez nazu ulertzen.

-Baliteke; neroni ere kirten samarra naiz, zu hainbestekoa ez banaiz ere. Ez dut esaten zuri eder egiteagatik, baizik egia delako, zu gauza guzietan zerala ni baino gehiago.

-Gizona...ez dakit...*errezelotan* jartzen nauzu...

-Zer errezelo?

-Adarra jotzen ote didazun....gero...ni eta Drogas... hasten bagera...hasi, uuum!

-Drogasek jotzen dizue zuri eta beste askori...adarra!

-Drogasek egiten duena da, egiak esan.

-Eta...adarra jo!

-Drogas bezelakoak gutxi dira.

-Gutxiago balira hobe.

-Drogasek dio agintari txarrak dauzka-gula.

-Guk merezi bezelakoak; geuk aukeratutakoak.

-Geuk aukeratutakoak?

-Bai, beinepein botoak horretarako izaten dira eta...

-Zertarako?

-Agintariak aukeratzeko.

-Ba...hark dio guziok berdin behar genukela;"bibala, igualá" horra bi hitz, biak berdinak, seiná hizkikoak.Eta hala guziok berdin behar genukela, eta ez batzuek aberats eta besteak behartsu edo pobre...

-Eskuko behatzak berdinak dituzu?

-Ez ba...baino...

Ez dituzu ikusten gizonen artean txikiak eta haundiak, zaharrak eta gazteak, lodiak eta argalak?

-Bai, alegia, batzuek sistrinak eta besteak prestuak ere!

-Bi gauza, oso berdinak, ikusi dituzu?

-Asko, asko ere ez, hala ere bi aizpatxo, bixkiak, Katalin eta Josepatxo, ondo berdinak ezagutzen ditut ba...

-Eta zein den Josepatxo eta zein Katalin ezagutzen dituzu?

-Zertan ezagutzen dituzu?

-Sudurretan dute halako desberdintasun edo *diferentzi* pixka bat.

-Beraz, ez dira oso berdinak.

-Hori hala da; baino Jaungoikoak egin ezagatik ere...

-Bai, bai: Drogas etorriko da Jaungoikoari erakustera!

-Ez, baino hark dio, ondasunetan denak berdin behar genukela.

-Praile sartzen bagera...

-Umm! Ez dut uste, Drogas sartuko denik.

-Zergatik ez?

-Nik dakit ba? Nik ez dakit zer esan nahi duen, baino praileak *fanatikoak eta retrogradoak* omen dira.

-Drogasek, inork egitekotan, ipini lezake berdintasuna ondasunetan, berak nahi balu.

-“Nahi balu “ diozu? Nahi luke ba inork baino gehiago.

-Hasi bedi ba bera aurrena *ejenplo* ematen.

-Horretan da ba bera mutila. Hor ez dabil ba herriz herri?

-Bai hizketan.

-Bai, hitz-urtsuak (diskurtsuak) botatzen ere.

-Baina, egitade edo *obrak* bota behar.

-Nola gero?

-Hara nola, zenbat etxe ditu Drogasek?

-Hamabi, berak dionez.

-Eta zuk?

-Nik? Oraindik bat izateko, bat palta.

-Zoazte ba eskribau batengana; eman deizkizula zuri sei etxe eskriturapean, eta izango dituzue seina, *bibala eta igualá*, bezela, biok berdin, eta gero zuen *ejenploare-*

kin besteak ere egin dezatela berdin.

-Banoa bertatik esatera...Agur...Agur...

-Zoaz ondo.

## II

-Hola Praisko: Zer dio Drogasek?

-Ondo derizkio zure esanari: arrazoia duzula dio, baino *ejenploak* goitik behera etorri behar duela, aberatsengandik hasita: bestela bera hasiko balitz, lotsagabetzat hartuko omen luteke...eta pozik hasiko omen litzake baino...

-Baino...baino...Adarra. Aberatsak hasi artean badago, badagoke puska batean. Eta non dabil bera?

-Atzo Parolkoan, gaur Mirinean, bihar dator gure etxera, etzi Morroilonera... eta horrela dabil.

-Horrela dabil - esan ezazu- adarra jotzen. Hark hain aberatsa delarik, ardit baten gauzarik ematen ez dizue, eta zuek po-break zeratela ahal duzuen guzia ematen diozue.Zer da hau? Adarra jotzea; eta

oraindik ere lo zaudete hainbeste adar-hots adituta.

Nahiago nuke horregatik haren hitz-urtsuak adituko bazenitu.

-Ze hitz-urtsu eta diskurtsu?

-Hark botatzen dituenak.

-Euskeraz hala erderaz?

-Erderaz, erderaz; eta ederki hala ere:  
*"La luistracion del sielo diez y nueve, bibala ilberta, abajo la reasion, abajo la idropesia, abajo los curas.."*

-Eta zer esan nahi du hitz hoiekin?

-Denok berdin behar dugula esan nahi omen dute; hala dio Drogasek; guk ez dakigu.

-Eta, jakin gabe, txalo jotzen diozute?

-Besteak jotzen dutenean...

-Horixe egiten zuten denbora bateko Erlategiko atsoak ere; besteak barre egiten zutenean, barre egin, eta gero galdetu; zeri barre egin diozute?

-Baino esan ezazu, Drogas erdalduna al da?

-Ez, Euskal Herriko semea; baino erdalzaletxo.

-Ba, ba! Hori ez da ez euskalduna eta ez erdalduna, ez euskalzalea.

-Zer ote dugu ba?

-Nahi duzu jakin?

-Bai, bai; jakitea on zaigu: adiskidea dugu eta...

-Aditu ezazue ba ondo. Hara... hori da "Aaaadaaarjootzailea!!!"

1899 "Euskalzale" Jorrailaren 27-an.



## Peru eta Pedro

### I

“HARROTZEN DENA HUMILDUKO DA”

**B**i gizon hauek beren herritik bi leguaz inoiz ere aldendu ez ziren, eta hala ere hitz-aldietan beti hitz-egin ohi zuten Paris, Londres, Merlin (Berlin) eta honelako hiri handiak gogoratuaz, baina inoiz ez zetozen ondo elkarrekin. Batak zuria esaten bazuen, besteak beltza esango zuen: gaur zuritzat ematen bazuen Pedrok eta bihar beltzat gauza hura bera, Peruk emango zuen gaur beltzat eta bihar zuritzat.

–Peru –esan zion behin baten adiskide batek– nola da, gaur beltzat daukazun gauza bihar zuritzat edukitzea?

-Ai! Zuk ez dakizu oraindik, baina munduak hogeita lau orduan jira asko egi-ten ditu.

-Eta nola da ba, zu ta Pedro hain jakintsuak izan eta hala ere elkarrekin ez ondo etortzea zuen iritzietan?

-Ai gizajoa! Jakinduriak maila asko ditu, eta ez gara guziok berdinak jakindurian.

Jai goizetan, meza aurretik, beti izan ohi zuten eztabaidaren bat bi gizon hauek, eta auzo hartako jendeak ardura handiagoz aditzen zituen haien esanak, apaizaren sermoiak baino, eta batek eta besteak bazituzten beren aldeko edo partidarioak. Baziren Pedrotarrak eta baita Perutarrak ere. Apaizaz ostean ziren gizonik jakintsuenak, eta apaizak izaten zuen zer eginik asko horien eztabaidak pakez erabakitzen, guziakin ondo gelditu nahi eta.

Urte baten auzoko alkate biak izan nahi zuten eta gogortxo haserretu ziren, eta jendeak erabaki zuen jakintsuena alkate egitea.

-Aizak, Pedro.

-Zer nahi dek, Peru?

-Hi jakintsua haiz, baina kasualitatez ni adina ez.

-Izan daiteke, baina...-Zer baina?

-Ez zekiat ba...

-Napoleon berririk ba al duk?

-Izango ez diat ba? Nola ez?

-Eta Esparterorenik?

-Baita.

-Eta bai al dakik Espartero eta Napoleon anaiak zirenik?

-Ez diat aditu egundaino.

-Ai, tonto handia! Ez hago txarra alkatte izateko.

Mindu zen oso Pedro eta haserretu ziren Perutarrak eta Pedrotarrak; apaizak izan zuen lanik asko haiek paketzen, eta esan zien biak zutela arrazoi; anaiak zirela eta ez zirela, hau da, anai erdiak, eta hara nola; bi amarenak zirela baina aita batenak ez... Ziria ederki sartu zien, biak gelditu ziren arrazoiarekin eta jakindurian berdin.

Jakinduririk asko  
 biak badaukate,  
 Biak egin beharko  
 ditugu alkate,  
 baina beude patxaraz  
 hau iritsi arte  
 bada oraindik joango  
 zaizte ehun urte.

## II

Pedro ez zen gelditu "satispazio" osoan. Anai erdiak ez dira anaiak, erdiak baizik -esaten zuen-. Baina Peruk erantzuten zion: Erdiak bai, baina anaiak.

-Egia da bi amarenak izanik ere izan daitezkeela anai erdiak, eta aita batenak izan ez da ere bai -zioen Pedrok-. Baina... baina... -honeraino bakarrik iristen zen bere jakinduria-. Dena dela -esan zuen- apai-zak esan du eta hala izan dadila.

Baina Pedrotarrak ez zeuden hortarako. Pedro ez zen apaiza bezin jakintsua; meza ezin emango zukeen, baina sermoiak egiten hor emango zizkion, atzera utziko ez bazukeen ere.

Jaiki zen ba herrian nahas-pila handi bat Pedrotar eta Perutarren artean eta azkenik erabaki zuten, San Juan egunean, arratsaldean, dantzan ondoen egiten zuena, alkate egitea.

-Konporme -esan zuten biak-. Bota bosteko hori!


San Juan eguerdian, ondotoxo, eta ondotoxo baino gehiago, ondo, eta ondo baino ere gehiago eta gehiago bazkalduta, atera zen dantzasoka, Pedro auresku eta Peru atzeskuan. Zutikan bai, baina *eseak eginenez*, zabuka. Jo zioten erdirako edo desapioa, eta han ziren lanak. *Kabriola* bat egin nahi eta hankarik jaso ezin. Elkarren aurrez-aurre jarri, zabu, ta ahariak bezela tope egin eta han erori ziren biak lurrera.

Gurdi banatan eraman zituzten bakoitza bere etxera eta herri guziak, gaur esango litzateken bezala, deskalifikatu zituen, herria paketu zen eta ez zuen gehiago inork ere alkategintzarik aipatu.

Harroak beti dira  
harrotxo ibiltzen,  
beren buruentzako  
sarri lorak biltzen,  
beren fama banatzen,  
ez dira ixiltzen,  
baina horrela dira  
harroak humiltzen.

URRUZUNOTAR PEDRO MIGELEK.

Euskal-Esnalea, 1920, azaroa





## Antzinako ezkontza bat

### I

**D**ran.. dran... dran... Abe Maria!... Nor da hemen?

–Je..je..! Kontuz, kontuz, ate zahar hori puskatu gabe; aurrera Baltasar.

–Iluntze on, Joxe Mari.

–Hala ekar deiguzula.

–Banekien ohean zinena, eta bixita bat egitera natorkizu.

–Jainkoak paga deizula zure borondate ona.

–Gainera mesede bat eskatzera nator.

–Ezin ukatuko dizut bada, ikusirik zure borondate ona.

–Bihar goizean ezkontzeko ustean naiz, eta alkandora bat eman behar didazu.

–Ai, adiskidea! Alkandora bakarra daukat.

–Eta zer? Egun batean egon zindezke alkandora gabe, ohean zauden ezkeror.

–Ordea, nere alkandora lixiban daukat; eta horregatik nago ohean.

–Gizon aberatsa zaude, alkandora bat besterik ez baduzu.

–Aizazu, zenbat dituzu zuk?

–Ni oraindik ez naiz gizon egin.

–Mutil gazte zeralarik, alkandora bat ez baduzu, ezkondukoan ez dituzu bi izango. Gizon berriz, ez egin eta ez zera egingo.

–Joxe Mari: “letraukeri” askotxo somatzen dizut. Zuregatik pobreak narrugorrian ibili beharko dute.

–Zuk ordea jantziko dituzu...

–Agur... agur...

Hamaika alper ogia jaten  
badago hemen lurrian,  
ni banaiz zerbait, baina baditut  
gehiago ere hurrian.  
Zu baino gizon prestuagorik  
ez balitz Euskal Herrian,  
askok ibili beharko luke  
zugatik narrugorrian.

## II

-Aizazu, Joxepa, ezkondu omen da  
Baltasar.

-Hala esan dute.

-Eta alkandora?

-Trapu-zahar saltzaile bati erosi omen  
zion bart, baso bat ardoren truke.

-Ederra izango da horrelako alkandora.

-Bai, bordatua bezelakoa, esan nahi  
dut, zulo asko-duna eta aukeran haundi-  
txoak dituena.

-Eta ez zion andregaiak alkandorarik  
eman?

-Bai, eta ederra; baina pitxar bat ardo-  
rengatik saldu egin zuen.

-Eta hala ere ezkondu Joxepainasi gai-  
xo horrelako batekin?

-Bai, emakumea, eta pozik hala ere,  
nere ustez.

-Eta ezteiak?

-Han zebilen Baltasar dantzan bazter  
guziak puskatu beharrean, bazkal aurretik,  
eta gero arratsaldean mahaipen lo.

-Eta Joxepainasi?

-Berari begira, eta "gizarajoa, ogi pus-  
ka bat baino hobea da" esanaz.

-Hori ondo dago...baino hor konpon  
Marianton!

-Bai, bai;berriz ere kantatuko dute:

Neska zaharrari zaharraren zaharrez  
ilea zaio urdindu,  
ezkondu nahita beti bakarrik  
hamaika negar egindu;  
aurrerakoan baldin badio  
gizonari nahi agindu,  
gizonak berak behar dizkio  
makilaz hautsak astindu.

## III

-Tan...tan...tan...tarrapatan.

-Nor da horrenbeste ixkanbilarekin?

-Ni Joxepainasi; ez ikaratu... Nagusiak esan dit, etortzeko norbait, Baltasarri laguntzera; han dago gizarajoa ondoeza emanda tabernan.

-Ondo dago tabernan badago; bere gaitz guzientzat botika bertan dauka. Zazpi egun hoetan ez da etxeratu; honezkero bertako egina da, eta hartu ezazue zeurontzat.

-Ez...ez...Joxepainasi gaixoa... ez.

-Badakizu, behia ere, esnedun dagoeanean, oso ona da etxean, baina antzutu ezker...badakizu...inork ez du nahi...

-Beraz behia ondo jetxia izango duzue, ez?


-Bazituen txanpon batzuek, jantziak ere onak zituen...baina denak saldu eta oraindik durotxo batzuk zor...zuk pagatuko bazenitu...

-Ez bazuaz hemendik, hautsiko dizut kopeta..!

-Ez, ez. Kopeta haustea baino nahiago dut etxera joan kantu hau kantari:

Baltasar dago antzuturikan  
Joxepainasi ere bai,  
senarrak zorrak ezin pagatu  
andreak berriz ez du nahi;  
gizona beti tabernan dago  
nahiz dela aste edo jai,  
Joxepainasik damu du oso  
ez gelditua ezkongai.

“Urzale batek” “Euskal-Erria” 1889.





## Pareja polita

### I

**P**rantxiska: ba al zatoz aza saltzera?

-Bai, berehalaxe nator, zaude pixka batean.

-Hobe dugu lehenengo baraua hautsi.

-Bai, geuron buruak ditugu lehenengo.

-Pattar ederra Berritxurenian omen dago.

-Guazen ba hara ere, bidea badakigu eta.

-Bai ez dugu lehenengo aldia, eta ez dedila izan azkenengoa ere.

Eztarri legortuak  
 behar du bustia,  
 Berritxuk dauka dendan  
 sendagai guztia.

## II

-Badakizu, Prantxiska, pattar honek indar gutxitxo daukala?

-Halaxe usten dut nik ere.

-Gehixeago edan beharko dugu.

-Beharko? Bai, noski; hamabiak ez dira berehala etorriko.

-Bai gu etxeratu orduko, ordubata ere alde-aldean izango da.

-Eta, gure lapiko-ondoetan ezer gelditzen bada ere, ez da izango gain-gainekoa.

-Hobe genuke zertxobait hartu, plazara baino lehen.

-Arrautza bana baderitzazu, baso-erdi-txo banarekin?

-Bai, alegia, geuron buruak ditugu lehenengo.

-Baita bigarrenago eta hirugarrenago ere.

-Arrautzak eta baso-erdi-txoak, bat, bi, hiru, lau eta...zertxobait gehiago.

Ez zuten izan plazara joan beharrik azak saltzeko.

-Gosaria pagatzeko lain eta zentimo batzuek gehiago zen azen balioa. Zentimo haiek propinatzen utzi eta abiatu ziren etxeruntz, adiskide zahar eta kontuak garbi (poltsak garbiago) gelditzen zirela.

Ez dakigu iritxi  
 zuten jatordurik,  
 baina ez zeramaten  
 lapurren bildurrik!

## III

Saskiak hutsik, poltsak ere bai, baina sabelak ondo beteta, abiatu ziren etxeruntz.

-Bai al dakizu, Prantxiska, zer daukadan gogoan?

-Zer ba, Inasi?

-Nere urdaila oso argal daukat, eta uste dut zuk ere berdin edukiko duzula.

-Neroni nengoen horixe zuri esan nahian.

-Zerbait ere hartu beharko dugu; gure etxekoak, onezkero bazkaldu dutela uste dut.

-Nahi dezun bezela, beinepein premia badugu eta; premi-orduan ez izatekoz, ez dugu ezertxo ere behar.

-Bazkari-legea egin zuten, kafea koparekin hartu ere bai, dirurik ez zuten bazkaria ordaintzeko, baina saskiak utzi zituzten ordaintzat.

-Etixeruntz joan beharrean, hartu zuten Aizkorregiko elizara zihoan bidea, eta eseak zabuka eginaz, heldu ziren hango eleizpera. Orduantxe sinistu zuten ordura arte sinistu izan ez zuten egi bat: lurra bazebilela jira-biran..

-Han zebilen eleiz-inguru guzia jira eta bira, eta zai zeuden jira-bira hartan noiz igaroko ote zen bere begien aurretik, beren herrirako bidea, handik berehala etxeruntz abiatzeko, baina lo apurtxoren bat ere egin

zuten eta nonbait bitarte hartan igaro zen bide hura; beinepein ez zen ageri. Hortan loak zeharo hartu zituen.

-Bitarte hortan herrian eta batez ere emakume haien etxeetan arduratuta zeuden, eta iluntzean jo zen kalean pregoia:

Bi emakume dira  
herritikan galdu,  
aza saltzera joanda  
ez dira azaldu.  
Ez dakigu dituzten  
azak ondo saldu,  
edo poltsatik ote  
diren oso soildu.

-Pregoa amaitu baino lehen aditzen zen burdi-irrintzi haundi bat. Han zetorren Aizkorregiko sakristaua bere gurdian bi emakume zekarzkiala eta honela kantari:

Bi emakume hauek  
herritik galduak,  
gure eleiz ondoan  
hartu ditu luak.  
Igarri gabe zaie  
igaro orduak,  
bestek ez du errurik  
baizikan arduak.

Bi emakumeak ixil-ixilik eta lotsaturik  
joan ziren bakoitza bere etxera.

(Bi ipuin hauetan Urruzunok ardo edo  
alkolaren ondoren negargarriak agertu nahi  
dizkigu, nonbait bere garaian ere kalte izu-  
garriak egiten baizituen).

Azaroan "Euskal Esnalea" 1919.



**Ama-alabak****I**

**J**oxepa: onezkero jeikitzeke ordua duzu.

-Orduak ez du ezer esan nahi, ama.

-Zergatik ez?

-Ez duzu ba esaten, gauzak ondo egin behar direla.

-Bai, alegia.

-Eta gauzak ondo egiteko bere beta behar dutela?

-Baita.

-Ba nik lo ondo egin nahi dut, eta ondo egiteko beta behar.

-Alajaina, lorik asko egiteko lain beta izan duzu beinepein.

-Ez dut ba hain asko ere egin.

-Ezetz?

-Ez, bat bakarrik.

-Baina bera luzetxoa noski, ez?

-Hain luze-luzea ere ez ba.

-Ez nonbait: hamarretan oheratu zinen, eta zortziretan oraindik hor zaude...

-Ez nago, ordea, lo; bi ordu hauetan esna nago.

-Zertan zaude ba jeiki gabe?

-Ez al dakizu, ama, lo egotea baino atseginago dela ohe epelean esna egotea?

-Zuk hala diozu.

-Baita esango ere, lo dagoenak ez dauka, ez atsekaberik, eta ez atseginik; baina lo nahikoa egin eta ohe epelean esna dagoenak...ai hura zerua!

-Mirabe joan behar baduzu horratik, ez dakit nola ibiliko zeran.



-Orain, ordea, lo asko egingo dut, eta gero gutxirekin nahikoa izango dut.

-Bai, zuk orain lo asko eta gero gehiago, ohiturak horren erraz kentzen direla uste al duzu?

-Hogeita bat urte ezkerro, gizona naiz emakumea, ez da gehiago azitzen, ez du lehen baino jateko gehiago behar izaten.

-Baina ez da txikiago ere egiten; jateko gehiago behar ez badu, ez du gutxiago behar izaten; heste lasaituak lasai gelditzen dira eta; gero eta lasaiago ez badihoaz. Zuk ere orain lo asko behar badezu, gero ez dezue gutxiago beharko.

-(Zer ote da zahartu eta txiflatzea!... Ama gaixoa..!)

## II

-Ama, ama!

-Zer duzu?

-Hauxe bai dela eskutitza.

-Norena?

-Martinarena.

-Madriltik.

-Bai, ama, bai, Madriltik.

-Zer dio ba?

-Hara: Kerida Pepita.

-Jesús! Nor degu Pepita?

-Neroni, ama.

-Berak bataiatu al zaitu izen berri horrekin?

-Ez, baina Madrillen ez omen dago Joxepik; baizik Pepitak.

-Guazen ba, irakurri ezazu aurrera.

-*Karta de uste kojiro grata, petxa de Julio diez dia kallando eskrita.*

-Zer esan nahi du horrek?

-Nitaz asko oroitzen dela.

-Ondo gaude, beraz.

-*Kasa ia mean kontrao buena, Plaseskiña kostitusion, kintze lumero, tertzio piso, ezkerreta.*

-Erderaz hala euskeraz dago hori?

-Bietara ama, bietara, eta ederki hala ere.

-*Amo es kondekasas y Alkazares.*

-Zer? Kasaka eta praka zaharrak dituela nagusiak? Ederki emango du. Zuk Madrillerako asmoren bat erabiliko duzu.

-Nik ez; baina berak esan zidan etxea bilatuko zidala eta...

-Ez, ez, zuri gertatuko litzaizuke txingurriari gerta zitzaiona.

-Zer ba?

-Txingurriak ikusi zuen astoa arrantza egiten, eta berak ere egin nahi izan zuen; ahoa zabaltzeko indar gehitxo egin zuen eta bi zati egin zen.

-Zer egingo dut ba nik?

-Nik bilatuko dizut zuri zuk behar bezelako etxea; hobe duzu lehenbizi Donostian urtetxo bat egin.

-Nola bilatu, ordea?


-Baserritarrei pregoi bat jo arazita.

-Nola?

-Honela:

“Neska on bat, mirabe  
joateko ustian,  
hemen dago inork nahi  
balu Donostian;  
Alperrik haundiena  
da herri guztian,  
baina beste errurik  
ez dauka ostian.”

“Euskal-Esnalea”, 1909, Dagonila , 15.



## Aitona eta biloba

*Asmo berria.*

-**E**z nauk ba egongo aurtengo udaran tren horixe ikusi gabe. Zer derizkiok, Joxe Mari?

-Gazteagoa zeralarik ez duzu ikusiko.

-Larogeita sei urteko gizona Euskal Herrian bizi, eta trenik ikusi gabe?

-Beste larogeita seian ere bizitzeko papera egingo nuke nik, trenik ikusi gabe izanta ere, bizi al banedi.

-Ni enatxiok ondo hiltzeko ere, eta dena dela, hik laguntzen badiak, datorren astean joango gaituk Donostiara.

-Bai aitona, bai; baina beste lagun bat ere behar degu.

-Zein lagun?

-Poltsa.

-Ontzaurre huraxe aldentzeak min ematen zion aitonari, baina, beti hari begira ez egoteagatik, erabaki zuen, bi egun barru Donostira joatea.

Aitona ta billoba  
biharamunian,  
sartu ziren Arruan  
lehenengo trenian,  
harriturik aitona  
trena heldu zanian,  
gutxigatik gelditu  
ez zen andenian.

*Trenian.*

-Aizak, Joxe Mari, zer esan nahi dik botoi horrek?

-Alarma.

-Ez zegok ondo.

-Nola behar du ba?

-A las armas.

-Ixilik zaude.

-Heu hago; ni soldadu izana nauk eta "a las armas" agintariak esatean, soldaduak armak hartu eta prest jartzen dituk.

-Ez dezazula horrelakorik esan, barre egin ez dezaizuten.

-Ai gizajoa! Hi oraindik umea haiz, baina ni zaharra, eta hi jaio orduko banekizkian gauza hauek.

Honetan eta horretan, aitonak estutu zuen botoia, gelditu zen trena eta bi guardia zibil zetozen kotxez kotxe, galdetuaz, tinbrea nork jo ote zuen, eta aitonak esan zion Joxe Mariri:

-Ikusten dek nola datozen gizon horiek beren armekin?

-Zergatik ote datoz ba?

-Nik "a las armas"-ko botoia jo dudalako; horregatik esaten diat, alarmaren lekuan "a las armas" jarri behar litzatekela. Sinestu zak orain aitonaren esana.

Heldu ziren guardia zibilak aitona zegoen kotxera, eta honek aitortu zuen berak jo zuela tinbrea.

-Zertarako? -galdetu zioten guardiak-.

-Mutil koskor honi erakusteko gauzak nola diren -erantzun zion aitona-.

-*Merecía este viejo...*

-*Meretzina a mi?, grazias. No quiero "jiringaziones". Tengo buena salud.*

Barre egin zioten guardiak, eta orduan esan zien:

-*¿Reñir antes y reir ahora, así es formalidad? Pazientzia ere handitxoa behar dut zuekin -zion aitona eta toxatik pipa belarrez beteaz hasi zen kantari:*

Berriketa asko ta  
gauz honikan gutxi,  
txorakeri horiek  
behar dira utzi,  
aiton zahar honek ditu  
gauz asko ikusi,  
zuek baino hobeki  
daki nola bizi.

-Aizak mutiko, pipak ez dik sabelik betetzen?

-Zer esan nahi duzu, aitona?

-Zerbait jango nukela.

-Ostaturen batera joan beharko dugu ba.

-Bai, eta onenera.

-Ezkurranera joango ote gera?

-Zer? Donostiara etorri ta ezkurra jatera? Zer uste dek, txerriak garela?

-Ezkurra, ostatuaren izena da.

-Izenaren modukoa bada, ez dek izango gain gainekoa.

-Ezkurrik ez digute emango, baina geuk atera beharko degu ezkurra?

-Nondik?

-Ontzaurretik; bera urtu beharko dugu.

Ontzaurrea urtzea  
ez da atsegina,  
baina gastatzeko da  
huraregina,  
txarragoa litzake  
gastatu ezina,  
Jaunak emango digu  
bizitzeko adina.

*Agur!*

Ondotxo bazkalduta bazihoazen aitona  
eta biloba trenera, eta aitonak esan zion bi-  
lobari:

-Donostiari agur egin behar zioat.

-Eta ontzaurreari ez?


-Ontzaurrea joan huan.

-Baina Donosti barruan egongo da  
oraindik.

-Biei egingo ziet ba -esan, eta bota  
zuen ondorengo bersto hau:

Antzinatik nahi nuan  
nik zu ikustia,  
eta orain pena det  
hain laster uzta,  
ederra bazera, bai,  
baina garestia,  
agur ontzaurrea ta  
agur Donostia!

URRUZUNOTAR PEDRO MIGELEK  
EUSKAL ESNALEA, 1917



## Praisku zaharraren kontu berriak

### I

**Z**er deritzazu Praisku?

-Zoro guziak ez daudela Zaragozan.

-Guzi guziak ez dira noski egongo.

-Ez, hemen ere bazebiltzak batzuek.

-Zein dira ba?

-Hegalariak.

-Abiadoriak?

-Txoriburuak.

-Ez dezazula horrelakorik esan.

-Arrazoia daukak, txoriak haserretuko dituk, gizon horiekin konparatzen badira.

-Zergatik ba?

-Gizon horiek bezelako astakeririk txoriak egiten ez dutelako.

-Zer astakeri?

-Bat erori eta hil dela, bestea mila zati egin dela, bestea tortila bihurtu dela, eta hala ere aurrera: hilak hil, biziak bizi, aurrera.

-Ez dira ordea guziak hil.

-Eta biziak, zer egin ditek ba?

-Gora eta gora igo.

-Arrano batek adina bai?

-Ez dut hori esaten baina...

-Ba hainbeste zaratarekin eta hainbeste gizon hiltzearekin, arrano batek adina ezin egin baditek... bapo zio!

-Ezin ukatuko duzu beinepein, gizon azkar eta jakintsuak badaudela.

-Nahiago diat nik asto bizi bat, mila gizon azkar eta jakintsu hilak baino.

-Astuak ere ez dakit ba zugandik urrutiti ote dauden.

-Ez, neronek ere uste diat, beinepein urrean daukadala.

-Astoa?

-Bai; hanka bikoa baina...

-Nigatik esan nahi al duzu?

-Hori hik diok. Horrelako egirik ez diat nik esaten.

-Egia al da?

-Beti eduki haut egizaletzat eta orain:

Nik esan nahi nuena  
herorrek dek esan,  
hor ezagutzen diat  
argiro nor aizan,  
Aurrerare horrela  
beharko dek izan,  
belarri bi eta lau  
hankakoen gisan.

## II

-Nik hori esaten diat beti, Patxi.

-Zer?

-Gizonarentzat lanik asko badagoela lurrean ere, aireetara joan gabe.

-Bai Praisku, bai, arrazoia duzu, baina airean ibiltze hori ere gauza atsegina izan behar du ta...

-Bai atxurrean egitea baino atsegina-goa, baina...

-Zer baina?

-Zer baina...baina... bidea labaina.

-Nahi ez duena ez da joango.

-Ez, baina, nahi ez duena, hil bai.

-Zer naizu ba! Mundua beti horrela izan da eta.

-Ez zekiat hori, laurogeita bost urte dauzkadalarik ere, baina dakidana duk, munduan beti izan behar izan dutela, nere ustez, gizon buru gogorrak.

-Baina orain lehengo aldian jende argia dago.

-Bai, bai, begietatik.



Begi argiak eta  
adimendu sorrak,  
gauza onak entzuteko  
belarriak gorrak;  
larri ibiltzen gaituk  
bildu arte lorrak  
baina buruak beti  
osoro gogorak.

### III

-Nondik gabilta Praisku?

-Sermioian izan naiz.

-Ondo egingo zuen praileak.

-Bai, hark ondo egin du. Guk ondo  
egingo bagenitu haren esanak...!


-Zer dio ba?

-Hor dabilzala harrotuta hegalariak.  
Saguzaharrak diruditela puskatxo bat igo-  
tzen dutelako.

-Eta hiltzen diranak?

URRUZUNOTAR P.P.

Euskal-Esnalea. 1911, iraila 15



## 13

**Anton Zurrut**

## I

**A**nton zurrut zen gizon bat, askok maitate zutena, batez ere ardo saltzaileak; edale polit bat zelako eta ostengoak farre egiten zuten haren kontura..

-Goizean edan ohi zuen pitxarretik, eguardian zahagitik eta arratsean upeletik, eta gero etxeratzen zen lau-oinean, askotan mokor gainetik gerrikoa zintzilik zuela, eta zirudiela errotako okuiluan egon ohi diren hoietako bat, arima apartatuta.

-Gure Antonentzat, gauzarik atseginetako bat, zerbait ondotxo betetakoan, *Hiru damatxo eta Txakolin*, kantatzea zen. Bere iritzian ez zen mundu guzian bera baino kantari hoberik.

-Kantari zegoela ardan-gela batean, iruditu zitzaion, Mari-Andres zeritzan andre alargun bat, aurrez-aurre bizi zena, negarrez zegoela, eta esan zuen bere baitan: -Ez ziok eguzkiaren azpian bihotzik, harrizkoa izanda ere, nere kantuak bigunduko ez lukeenik-.

-Hala uste zuen gizarajoak, bada ardoren argitasunarekin ikusten zituen ez ziren gauzak ere. Handik lasterrera Mari-Andres zegoen etxeko atarian; deitzen dio Antonek, eta esaten dio: -Badakit, Mari-Andres gaixoa, atsekaberen bat baduzula, bada ikusten ditut zure begiak negar-malkoz bustiak. Jakin al nezake zerk ixurarazten dizkizun negar-malko hoiek? Pozik egingo nuke alegin guzia zure bihotz horri samintasun guztiak kentzeko eta atsegina emateko.

-Asko estimatzen det zure borondatea -erantzun zion Mari-Andresek- eta arrazoa esango dizut hitz gutxitan. Jakin ezazu bada zure kantuak eta ez beste gauzak ixurarazten dizkidala nere malkoak, bihotz gogorrekoa banaiz ere.

–Ai! –esan zuen Antonek–ordea, hoiek dira negar malko gozoak!

–Ez, ez–dio Mari–Andresek– dira guziz samingarriak!

–Emakumea! Ez dakit nola izan daiteken hori.

–Aditu ezazu bada. Banuen astakume polit bat, oso maitea nuena, eta orain bi urte galdu zitzaidan nola ez nekiela; geroztik hartaz oroitzean, sarritan negar egin dut eta gaur arratsaldean zure kantua aditzean, iruditu zait nere astakumearen arrantzaz... eta...

–Haserretu zen Anton eta hotzikara hezurretaraino sartu zitzaion, karranpak edo kalanbreak gora eta behera, eta kolera izugarrian ezkutatu zen etxe aldera.

–Bi egun egin zituen ohean, ura, té eta laudonoa besterik hartu gabe; baina nola eman zizkioten erremedioak laster sendatu zen eta jeiki zen haizea zeriola, hots ederrak ezker–eskubira banatuaz.

–Joan zen berriro tabernara eta hara

heltzean tabernariak eta biak egin zioten elkarri ongiatorri hain haundia, zirudiela Ameriketatik zetorrela eta urte askotan elkar ikusi gabe zeudela. Berehala hasi ziren zurrutian, baina ardoa tripara sartzean hai-zeak kanpora burrundara haundian.

–*Sopla!!... Sopla!!...* esan zuen erdaldun batek hotsak aditzean.

–Solpa... Solpa... esaten dek? –dio Antonek– nahiago nitek baneki (solfeoa) hire sudur motza baino.

–Eta edan ezkerro nahiko bertsolaria zenez, bota zion bertso hau erdaldunari:

Erderaz bazekiat  
ardoa dela *pan*,  
ogia berriz *biño*  
*ver* edan, *beber* jan,  
ikasi izan banu  
apurtxo bat solpan,  
“Gayarrentzako” lanik  
ez huen Europan.

-Agertu zen lehioan Mari-Andres, eta lehendabizi ikaratu zen zerbait Anton-Zurrut, baina pitxer bat ardo edan eta hai-ze batzuk bota zituenean honela kantatu zion Mari-Andresi:

Mari-Andres, zuk eman  
zenidan kolera,  
eta laster eraman  
ninduten ohera;  
baina orain etorri  
naiz leku hobera,  
laudano denak baino  
ardoa hobe da.

-Hango txalo zaparrada Antonentzat, baina ixildu samartu ziranean Mari-Andresek honela kantatu zion berari:

Arraiak hezurra du  
larrosak arantza,  
ardoaz ez gehiegi  
hartu konfiantza;  
izan ez dezazuten  
astoaren antza,  
kantatu beharrean  
eginaz arrantza.

-Hau aditzean haserretu zen Anton-Txurrut. Baina honela esan zuen: Mari-Andresek, bai sartzen duela moskorraren kontrako txertua eta kolera. Eta ez nitxok gehiago joango tabernara!

-Esan eta egin, kunplitu egin zuen bere promesa.

-Balekite moskorrak, hain gauza itxusia da moskortzea, egingo lutekela Anton-Zurrutek egin zuena.

“Ur-zale bat” “Euskal-Erria”, XIII 1885.





## Bi ahizpatxoak

### I

**G**arizumako gau baten Irigaraiko sukaldetan, Mari Errosa, hirurogeita hamar urteko amona, ari zen erakuspenerakusten, bere bi loibatxoei, Joxepa eta Katalin. Zortzi urte zituen bata eta zazpi besteak; urte hartan egin behar zuten beren lehenengo aitortza eta nola urte hartan hil zitzaizen bere ama, amona zuten amatzat. Logaleaz zeuden bi umeak, eta ernai egon zitezten, esan zien amonak, ipuin bat kontatuko dizuet.

-Bai, bai -erantzun zuten bi umeek-esna egongo gera eta pozik entzungo degu. Polita al da?

-Oso polita-esan zien amonak- antzinakoa, baina izan daitekeen politena. Esaten hastera noa.

## II

Antzinako denbora haietan katuak hizketan zekiten, eta jaun aberats baten jauregian, bi katu zeuden. Bati zeritzan Peris eta besteari Monis. Hau oso ona zen baina Peris nahiko gaiztoa, eta honen gaiztakeriak, poliki-poliki, igerri ere egin gabe, ikasi zituen Monisek. Bere amak esaten zion honi, ez zedila ibili Perisekin, baina alperrik. Monis ona zen baina amaren ondotik aldendu zenean, ahaztu zen amaren esanaz, eta Perisekin oso adiskide egin zen.

-Egun batean aurkitu zuten idikirik janari gelako atea, eta sartu ziren bertan. Ikusmiran zebiltzala, aurkitu zituzten apal baten gainean bi lukainka, eta esan zion Perisek Monisi:

-Aizazu Monis.

-Zer nahi dezu Peris-erantzun zion-

-Gaur ezteiak ospatu behar ditugu.

-Nor ezkontzen da ba?

-Ni beinepein bai.

-Norekin?

-Lukainka hauetako batekin.

-Jatera al zoaz?

-Bat bai.

-Eta bestea?

-Zuk jan dezazuke.

-Hoben edo gaiztakeri haundia da hori.

-Atea zabalik utzi duenak hoben haundiago egin du, ez guk; eta azkar ez bazabiltz, biak jango ditut, eta geldituko zara ahoa bete hortz, baina sabel-hutsean.

-Baina...baina...begiraiozu...hori...hori...ordea...hoben da ta...

-Hemen bota zuen erderakada bat Perisek...Bi umeak harriturik, eta oso ernai, entzuten zeuden amonari, eta galdetu zioten:

-Erderaz ere ba al zekiten katuek?

-Gutxi, eta gauza onik ez - erantzun zien amonak.

-Zer erderakada bota zuen ba Perisek?

–“Biba la libertad”; eta hasi zen lukainka marra–marra jaten.

–Eta amona: Monisek zer egin zuen?–galdetu zioten bi ilobatxoek.

–Larritu zen, lukainkarik gabe gelditze–ko beldurrez, eta bere artean esan zuen: Euskal Herrian zilegi izango da erderaz la–purtzea, eta erderakada bat bota ondoren, hasi zen beste lukainka jaten.

–Eta Monisek ere bota zuen erderaka–da?

–Bota zuen.

–Zer esan zuen ba?

–“Biba la igualdad” eta irentsi zuen lu–kainka.

### III

Bazkari ona egin zuten bi katuek, bai–na ez aparia. Nola arrapastaka jan zuten, ezin dijerritu izan zuten jan zutena, eta ilun–tzean hasi ziren sabeleko minak:–ai, oi!–esaten zuen Monisek, banoa norabait sen–dagilearengana. Esan dizut nik zuri; Peris,

gaizki egiten dugula, horra orain hemen mi–nondorea (kastigua).

–Ixilik egon zaite –erantzun zion Perisek– zu baino gaizkiago nago ni, baina zer egingo dugu?

–Zer egin? Joan sendagilearengana.

–Lotsa hori hartu baino lehen leher egin dut.

–Ni banoa Peris.

–Baina, norengana?

–Sukaldariarengana.

–Joxepantonirengana?

–Bai, eta azkar gainera.

–Ai, zer zigorkadak hartu behar ditu–zun gaixo horrek!

–Ez det uste, emakume ona da eta.

–Nik bezela bazeneki...

–Dena dela, ni banoa.

–Zoaz bada bi mila aingeruekin–esan eta han gelditu zen Peris ganbarako baztar batean. Monis berriz joan zen Joxepantoni–

rengana eta apal-apal aitortu zion bere hobena.

-Eta jo al zuen zigorrarekin?-galdetu zioten amonari bi loibatsuek.

-Bai zera!-erantzun zien amonak -Joxepantoni ona zen, errukitu zen katu gaixoaz, eta belar batzuek egosirik, eman zion haien ura, botarazi zion barruan zeukan guzia, eta urdaila garbiturik, oso ondo gelditu zen Monis.Esan zion Joxepantonik, handik aurrera al zituen xagu eta arratoi guziak harrapatzeko, baina ez zezala ezer hostu;eska zezala nahi zuena eta berak emango ziola.

-Eta ez al zion inori esan Joxepantonik?

-Ez da inori ere; eta handik aurrera, oso maite izan zuen Monis.

Eta zer egin zuen Perisek?

-Esango dizuet eta entzun ondo.

-Bai amona, bai, entzungo degu.

## IV

-Gauerdian-esan zien amonak-hasi zen Peris marruaz: miau... miau...ai, oi! Eta erderakadak boteaz.

-Zer erderakada? Galdetu zioten umeak.

-Ez noa esatera, oso itxusiak dira eta...Etxeko guziak esnatu, jeiki eta joan ziren ganbarara, eta han aurkitu zuten Peris gaixoa leher eginik eta azkenengo arnasetan.

-Hura bai lotsa! Esan zuten umeak.

-Lotsa eta gainera, oinaze haundien ondoren, hil egin zen, eta Joxepantonik buztanetik helduta han zegoen karobi batera bota zuen.

-Eta amona, Monisek, zer egin zuen?

-Han zegoen ixil-ixilik sukalde bazterrean, mila esker Joxepantoniri emanaz, hartzaz erruki haundia izan zuelako. Zurkaizturik zeuden umeak hau guzia entzutean, eta azkenik esan zien amonak:



-Hona orain zer ikasi behar dezuten:

-Lehenbizi, entzun ondo zeuen gurasoen eta zaharragoen esanak, eta ez elkartu lagun gaiztoekin. Ikusi dezute, nola, Monis, hain ona izanik ere, arrixku haundian aurkitu zen, Perisekin elkartzean.

-Bigarren: Erderarik, ahalik eta gutxien erabili.


-Hirugarren: ezer ez hostu, baizik eskatu.

Laugarren eta azkenez: hobenik egiten badezue, ez utzi lotsaz, aitortu gabe, bestela lotsatu beharko dezue egunen batean eta botako zaituzte suleizera. Hori nahiko al duzute?

-Ez, amona, ez; guk nahi duguna da, hobenik egiten badugu, Monisen antzera aitortu, eta zerura joan.

-Gogoan izan bada, lau gauza hoiak, eta honenbesterekin nahiko erakuspen badugu gaurko.

-Ondo dago, ondo dago, -erantzun zuten umeak- eta musu bana amonari emanaz, oheratu ziren bi aizpatxoak.



## Ijitoak sal-erosian

### I

**A**izazu Prointxio, zer arraio? Euskal Esnalea ere hasi al da gurekin?

-Edo gu berarekin, Kazinto.

-Egia da, gu geurok ere esnaleak gera.

-Bai, loti gutxi da gure artean; arloteak ez det esaten ez gerala, baina lotiak ez gera, beti ernai.

-Gainera gu euskaldunak eta eskaleak ere bagera.

-Bai, hartzaileak ere, baina emaileak ez.

-Ez, ez litzake ondo egongo titulo gu-ziak geurontzat hartzea.

-Zer egin zenuen atzo Don Klemente-  
rekin?

-Ezer ere ez, haren poltsak zazpi korapilo izan behar ditu eta.

-Zenbat eskatu zenion zaldiarengatik?

-Hirurogei duro.

-Eta eskeini?

-Berrogeita lau; hamar eskeini balizkit egingo genuen pesta ederra San Prointxio egunean.

-Nik egingo diot Klemente horri kelesaka eder bat.

-Ia ba ezer egiten duzun.

-Bai; hatoz bihar, goizeko zortziretan, aldapetako bentara, eta gainerakoa nik egingo dut, zuk dakizun bezela.

-Ondo dago: hitz gutxi eta haiek onak, *mutxo sekreto, pokito erdera.*

### II

-Kaixo Kazinto; zer berri dakarrek?

-Aditu dut beorrek berrogeita lau duro eskeini diola Prointxiori zaldiarengatik.

-Halaxen duk.

-Nik neretzat aterako nuke zaldi hura hogeita hamarrean.

-Nik erosiko nitek ba berrogeian.

-Baina ez dezala jakin Prointxiok, gu bion arteko traturik.

-Nik esanda ez dik jakingo.

-Egin beza ba mesede etortzea bihar goizean zortziretarako Aldapetako bentara hogeita hamar duroekin, eta Prointxiok ikusi gabe, benteroa testigu dela, Prointxiok datorren unean emango dizkit, eta nere kontu gainerako guzia. Nik bihar zaldia nereganatuko dut, eta etzi beorri salduko diot berrogeita lau duroan: hala hitzegingo dugu nagusiaren aurrean.

-Eta ez ote du gaizki pentsatuko ni han ikusita? Eta neri berrogeita lau duroan eman nahi ez da, zuri hogeita hamarrean emango ote dizu ezereen uste txar gabe?

-Bai, Don Klemente, bai, beorrek ez daki oraindik gutakoen berri, baina ikasiko du.

-Eta nik zer paper egingo dut?

-Beori izango da testigu benteroarekin batean.

-Ba al daki Prointxiok?

-Bai, atzo hitzegin genuen zerbait, eta esan zidan, hark herriko gizonik ondraduenen aurrean nahi zuela tratua egitea formalidade guziakin: galdetu nion ia Don Klemente eta Benteroaren aurrean nahiko zuen eta "Koorriente" erantzun zidan.

-Beraz, bihar goizera arte.

-Bai, Jauna, bai; gabon Jainkoak deio-la.

### III BENTAN

-Zer ordu dugu Don Klemente?

-Zortzirak, Kazinto.

-Ordu erdi-barru hemen izango dugu Prointxiok bere zaldiarekin.

-Bai: hara non datorren: ageri da Ergarasteko tontorrean.

-Eman behar dizkit ba hogeita hamar duroak.

-Bai: hona hogeita bostna pezetako sei bilete non ematen dizkizudan, eta zu Bentero, testigu izango zera.

-Bai Jauna, esan zuen Benteroak.

-Kazintok kartera atera, sei bileteak han sartu, eta kartera kolkoan sartu zuen.

-Badakizu, Kazinto, Prointxio oso geldi datorrela?

-Nik azkartuko det hura, joaten banatzaio. Har beza, Don Klemente, kartera hau, eta bihurtzen naizenean emango dit ixil-ixilik. Egundokorik azkarren ekarriko det Prointxio zaldiarekin.

#### IV

-Bazatoz, Prointxio?

-Bai Jauna.

-Eta Kazinto?

-Orridiko nagusiak deitu dio, mandoari sangri bat egiteko, gaixorik daukala eta, berehala datorrela esan dit.

-Zer tratu duzue?

-Jauna, hirurogei duro eskeini dizkit eta ematera noa.

-Norentzat ote du?

-Italiano batentzat; orain emango dizkit hogeita hamar duro, eta gainerakoa saltzen denean, eta esan dit laster dela hemen, egin dezagula abroka (hauzia) bitartean.

-Egin dezagun ba.

#### V

-Egin zen abroka, igaro ziren bi ordu, baina Kazinto ez zen ageri, Prointxiok ordaindu zuen abroka eta pake santuan joan ziren bakoitza bere etxera, Kazintori zer gerta ote zitzaion jakin nahiean.

-Don Klementek lehenbiziko egin zuen lana izandu zen karterako bileteak osorik ote zeuden ikustea. Osorik egon zitezkeen, baina ez han; zer aurkitu ote zuen ba? Paper zahar batzuek kartestalki batean sarturik, eta estalkiaren gainean ondorengo bertso hau:

Klemente honek zaldia  
erosiko luke,  
bere jabeak eman  
nahi balio merke;  
paper zaharrak hogeita  
hamar duron truke,  
laster egingo dute  
Markes edo Duke.

Euskal Esnalea, 1909, Jorrailaren 15-an.



## 16

**Gran burrico****I**

**E**z dut damu, ez, Kordobara joana; makinatxobat gauza, bestela ikasiko ez nituenak, ikasi ditut beinepein.

-Eta, nola ibili zera alderdi haietan?

-Nola ibili? Nola ibiliko nintzen! Oinen gainean.

-Eta hori al da ikasi duzun guzia? Hemen astoak dabilta oinen gainean, eta hoiiek jaiotzatik.

-Han asto asko ere ez da ba.

-Baina haundiak bai, ez da?

-Gutxi dira ba.

-Izan daiteke, zu etorri zinanetik bat gutxiago izatea.

-Zer ba, ni astotzat hartzen nauzu?

-Nik hartu al zaitut ba? Ez dizut barren ikuturik ere egin.

-Hartu ez, baina zure hitzaldietan astotzat jotzen nauzu.

-Nik zu jo? Gizona! Ez dezazula esan horrelako zorakeriarik; bestela Santa Agedara eramango zaituzte.

-*Bengauste pues a mi Santágera, ia la dareuste buen Orapronobis*, esan eta, alde egin zuen Praixko gizarajoak.

**II**

Kordobatik inguruko herri batean egon zela morroi zortzi urtean. Nagusia mutilzaharra, oso aberatsa zela "*hombre-rico*"-ren izenaz ezagutzen zena inguruko herrietan. Nagusia hiltzean ondotxo utzi zuela bere morroi hau, hala ziren berriak. *Hombre rico-ren* izena asko gustatzen zitzaion gure Praixko honi, baina ezin behin ere ondo ikasi esaten; *hombre-rico-ren* lekuan, esan ohi zuen "*Gran borrico*"; eta herri hartan

Praixkori ez zioten beste izenik esaten *Gran borrico* baino, eta bera oso kontentu zegoen, nagusiarekin berdintzen zutelakoan.

Hemendik kontu atera dezakegu zer ikasi zuen nahiz Kordoban, nahiz Salamankan.

Gauza batezaz harritzen ziren bere herritarak. Trenetik atera zituzten tresna guztiak gainean eskribaturik zekartzen: *Gran borrico*, eta galdetzean Praixkori, zer esan nahi zuen letrero hark, erantzuten zuen oso harro, hura zela bere nagusi zenaren tituloa eta orain berea.

-Zer esaten diguzu Praixko, Kordobako berririk?

-Hola apartekorik ere ez daukat ba.

-Zuk etxe ona harrapatu zenuen da...

-Bai, baino ondo kostata.

-Nola ba?

-Hara: gu geunden herritik "Izerda" deitzaion herri txiki batera egin zen kotxe-bidea, eta letrero bat behar zen, irakurtzen ez zekitenak ere entenditzeko moduan.

-Ez zen lanbide erreza, arraietan!

-Nik asmatu nuen ba nola egin eta baita egin ere.

-Nola ordea?

-Honela:

*Kamiño para Izerda*

*Si no sabes leer*

*Kojauste al izkerda.*

-Orduantxe eraman ninduen bere etxera *Unburrico* Jaunak.

-Bere laguntzat ez da hala?

-Hori da.

-Bai, bai *Unburrico* eta gero *Dosburrico*; ez da hala?

-Hooooorixe da guzia...! Gustoa da sikira zuri esatea.

## III

-Zezenik eta ikusten al zenuten, Praixko?

-Astero, gizona, astero; nagusia eta biok egoten ginen alkoba printzipalean, Kordobako zezen plazan. Praskules berriz oso adiskidea dut.

-Nor dugu Praskules hori?

-Hori ere ez dakizu? Hori izanda ba Espaniako torerorik onena.

-Praskuelo izango da hori.

-Hori erderaz da; baina ni euskeraz ari naiz, eta horregatik diot Praskules.

-Ez zuen bi aldiz esan beharrik izan. Hazi hori lur onean erori zen. Praixkoren lekuan Praskules esaten zioten euskaldunak: eta erdalzaleak berriz *Granburrico*. Kontentutu zen bere izen eta titulo berriez; *Markes* egin izan bazuten ere, ez zuen poz gehiago izango.

## IV

-Teatroan izaten al zen beori Don Praskules?

-Izan bakarrik? Izan, ikusi eta ikasi ere bai; *Ke te piensas pues Mozo?*

-Eta egitan, hitz-aspertu ederrak egiten zituen konfiantzazko lagunen artean, eztarria apurtxo bat busti ondoren. Txalo asko jotzen zioten lagunak, baina Tripoil zaharrak esaten zuen, Praskules eta Montorok berdintsu kantatzen zutela, ez bazekiten ere gaizki edo ondo egiten zuten. Montoro errotako astoaren izena zen.

## V

Herriko festa eguna zen, eta Praskules kantatzera zihoan gauean teatroan. Hamarren bat gizon han zeuden zerrepeldurik, txalo jotzeko prest, eta kantuan hasteko ahoa zabaldu zuanerako Praskulesek, Montoro hasi zen arrantzaz atarian, eta hamar gizonak hasi ziren txalo jotzen Montorori, Praskulesi jotzen ziotelakoan; ordu er-



di iraun zuen txalo zaparradak eta azkenean esan zuen Tripoila zaharrak:

Praskules dela *Granburriko*?  
Izen hoberik ez zaio jarriko.

“Ibaizabal” 1902, Azaroaren 9-an.



## 17

**Auzi bat**

**L**orretako sukaldean, aspaldiko gaue-  
tan, bazebilen erlea, hau da; zurrumu-  
rrua. Ez dakit gaur, Parisen eta  
Berlinen artean ere, hainbeste eztabaida  
ote dabilen.

Matxalenek erderaz ikasi nahi zuen,  
bere ama Anemarik ez zion eragozten, bai-  
na "Zertarako duzu erdera" esaten zion  
amak alabari.

-Zertarako?- erantzuten zion alabak-  
eskale erdaldun bat atera badator ere,  
ulertu ezin eta...

-Hogeita hamalau urte badaramazkit  
Lorretan, eta oraindano ate ondora etorri  
izan diren eskale erdaldun guziei ulertu

diet. Artaburu bat, ogi zati bat edo gazta  
apurtxo bat emanarekin, erdaldun guziei  
ederki ulertu diet eta hain ondo heurak ere  
neri.

-Lehengo zaharren kontuak - esan eta  
buruari hatz-eginaz, ixildu ohi zen  
Matxalen, hala nahi ez bazuen ere.

-Matxalenek, erderaz ikasteko aitzakiz,  
Madrilera joan nahi zuen, Amoteiko Joxepa  
bezela, eta amak igartzen zien alabaren as-  
moei.

-Gau batean, beste askotan bezela,  
eraso zioten elkarri ama-alabak, eta amak  
esan zion:

-Erdera horren beharrezkoa bazaizu,  
herrian bertan ikasi zenezake.

-Alabak.-Non?

-Amak.-Sanchez barkilogilearen etxe-  
an, neskame bila omen dabiltz eta...

-Alabak.-Leku onera bialdu nahi nau-  
zu. Lehengo egun batean eman zidan lotsa  
Prantxez edo traste horrek...

-Amak.-Nola?

-Alabak.-Ni nere bidean kalean barrena nindoan eta "Hola, moza" esan zidan eta kolore gorriak atera zizkidan.

-Amak.-zer esan nahi izan zizun bada?

-Alabak.-Gauz on haundirik ez; motza naizela.

-Amak.-Hori ulertu bazenion, nik baino erdera gehiago dakizu, eta ez duzu inora joan beharrik erdera ikasteko.

-Alabak.-Ez ba; agure mortzil haren neskame joango naiz eta bai ederki eman ere.

-Amak.-Neskame joan eta etxekoandre egin zindezke.

-Alabak.- Eta gero barkiloak saltzera.

-Amak.-Bai; baina erderaz.

-Alabak.-Eskarrikasko.Hortarakoxe nagola uste al duzu?

-Amak.-Bai al dakizu txingurria nola hil zen?

-Alabak.-Ez dakit aditu ere inoiz egin dedan.

-Amak.-Ba jakin ezazu; hil zela astoaren arrantza egin nahi eta egin ezinez. Lehertu eta hil egin zen.

-Alabak.-Ez dakit zer esan nahi duzun.

-Amak.-Zu Madrilerara joateko asmotan zabilta, beste batzuek joan direlako.Horixe da nahi zenukena.

-Alabak.-Nik ba...nik ez det esaten ezezik ere, baina...

-Amak.-Baina baietz esango zenuke noski.

-Alabak.-Ez dakit ba.

-Amak.-Nik bai.Eta horixe izango litzake astoaren arrantza egin nahi izatea.

-Matxalen mormorretan bere artean, aldendu zen, auzia galdutzat emanaz, esaten ziola bere buruari: Gure ama sorgina ez danik ere, ez nuke esango.Nondik dakizki horrek nere asmoak?

-Amak berriz bere artean esaten zuen:

Lehengo zaharren esana  
beti da egia,  
sua dagon lekutik  
irtetzen da kia.

“Euskalerrria”, 1914.



## Andre gaztea eta neskazarra

### I

**S**agardotegiko atean azaldu zen igande goizean erderazko iragarri edo anuntzio bat, era honetan:

*“Gran puntzion de bertsolaris mujeres. Una bieja sin kasar, y una joben sin biejar, casara. Materia sakatrapus. En las kua tropunto tarde. Entrada de konpianza, sin pagar”.*

–Krisanto zer esan nahi du iragarri horrek?

–Ez dezu ulertzen Uxabi?

–Nik ez.

–Ba esan nahi du, gaur arratsaldeko lauretan bertsotan jokatzera dihoazela.

–Nor ote dira?

–Bi emakume: bat andre ezkondua eta bestea neskazarra.

–Izenik ez al du jartzen?

–Ez, baina omen dira: andre ezkondua Baxakatua, eta neskazarra Zirauna.

–Ai zer pareak muserako!

–Ederrak.

–Nor dute Juez?

–Don Braulio.

–Hara bestia!

–“Bestia” al da hura?

–Nik hala diot ba...

–Kontuz gero; erdalzaletua dago aberastu zen ezkerotik eta “bestia” deitzen badiozu eta berak erderakotzat hartzen badiuzu...kontuz ibili!

–“Bestia” esanda ere, ez dakit gezur haundirik esango ote diodan; anka-biko bestiak ere izan ohi dira eta...

–Ba, kontuz ibili zindezke.

–Eta nork ipini du iragarri hori?

–Don Brauliok.

–Ba...ba...izena jarria dauka: anka-bi-ko “bestia”

## II

Arratsaldean han zeuden sagardotegian. Upelaren ondoan, Don Braulio, Baxakatua eta Zirauna. Hiruren artean bazeramaten upela “maria-beran”. *Sin pagarreko entrada-rekin*, jende asko sartu zen. Laugarren tran-gadan hasi ziren bertsolariak:

Andre ezkonduak neska zaharrari:

Enpleatzen ez bada  
gazterikan neska,  
pasa beharko ditu  
makinabat kezka;  
burua txoraturik  
senargairik ezta,  
horra, azkenerako  
neskazaharren pesta!

Neskazaharrak:

Gazterik ezkonduak  
ikusten ditut nik,  
beren bizimoduaz  
ondo asperturik;  
senarraren maleta  
ezin eramanik,  
neskazaharrak ez dute  
horrelako lanik.

Andre ezkonduak:

Estimazio gabe  
dago neskazarra,  
askok egiten dio  
burla eta farra;  
bera ona bada ere  
izena du txarra,  
kontsolatzeko badu  
zerbaiten beharra!

(Saio oso luzea izan zen eta muestra honekin nahikoa degu)

“Ibaizabal” 1902.Abenduaren 14-an.

## Moda zaharra berritua



- L**ukas, Donostian, izan omen zera.
- Bai, han izandu naiz.
- Eta zer iritzi diozu?
- Aditzea banuen Donostiarrak Joxemaritarrak zirela eta izan ere bai.
- Nola ba?
- Lujua bazala esaten zidaten Donostian, eta hala iruditzen zait, baina beste gauza bat ere ikusi dut.
- Zer ba?
- Han ikusi nituen hiru edo lau neska xaxtar...
- Apainduak?

-Bai, baina exkas-antzean.

-Zer zuten ba?

-Soineko ederrak bai, baina oso moztzak; belaun buruetaraino bakarrik heltzen zitzaizkien, eta handik beherakoa gorri-rik. Hobe zutekeen soineko merkeagoak eta luzeagoak egitea.

-Hori besterik ez bada...

-Baina gehiago ere bada.

-Ea ba zer?

-Emakume sasoikoak...

-Apainduak?

-Bai, baina beren besoak gorri-rik, eta lepoak ere bai. Ez al litzake hobe, jantzi merkeagoak, baina gorputza hobeki estaliko lutekenak egitea?

-Ai, Lukas gizarajoa! Hori oraingo moda duzu gizona, moda berri-berria.

-Hala usteko duzu zuk eta baita Joxemaritarrak ere.

-Baita mundu guziak ere.

-Mundu guziak ez. Ni ere mundukoa naiz, baina ez det hala uste.

-Zer uste duzu ba zuk?

-Moda hori, moda bada ere, ez dela oraingo berria.

-Zer ba?

-Modarik zaharrena.

-Zaharrena?

-Bai, zahar guzien artean zaharrena..

-Ja...jai! Oraindik gehiago ere adituko dugu.

-Nahi dezu aditu?

-Esaten badidazu...

-Badakizu Adanek eta Ebak zer soineko zuten Jaungoikoak egin zituenean?

-Zuk eta nik jaiotzean genuena.

-Eta gero pekatu egin ondoren?

-Hori nik ez dakit...

-Zuk ez badakizu, nik esango dizut. Piku-ARBOLA baten orriak hartu, josi eta jantzi ziren.

-Jostunik bai al zen orduan?

-Heurak ziren jostunak.



Gauza batek gogoan oso jo zuen Bartolo; anima galdu... infernua... beti-betiko, esan zion emazteak ; eta ez zen hau buru arina, ezta gezurtia ere, zitala bai baina fina...

Gau hartan ez zuen lorik egin: hurrengoetan ere ez, beti gauza bat zerabilen buruan: anima galdu... infernua... beti-betiko.

-Ez, ez zen hori bizi izatea. Prailearekin egonaldi bat egin behar zuen Bartolok.

Luzetxoa izandu zen Bartoloren prailearekiko egonaldia. Zer igaro zen haien artean ez dakigu. Baina aurrerakoan , Bartolo beste bat da. Egunero meza eta errosarioa, zortzian behin aitortu, meza nagusira jaian, bezpera eta elizfuntzioetara zintzo joan, eta honela zen bere bizitza. Hau guzia zen bere emaztearen sermoiaren lorpena edo frutua.

Bartolok etxearen sarrerako atean idatzi zuen hizki handiekin:

Batek mundu guzia irabazten badu,  
baina bere anima ondorean galdu,  
Satanasi betiko diolako saldu,  
galera hau zerekin dezake ordaindu?

Posdatan.

-Eta alegia. Oiloa?

ORAINDIK BIZI DA.

URRUZUNOTAR PEDRO MIGELEK

Euskal-Esnalea, 1917, urria, 15-30.



## Aurkibidea

---

- Sarrerako oharrak .....	5
- Pedro Migel Urruzunoren bizitzaren data batzuk.....	10
- Bere bizitzako bitxikeriak.....	11

### IPUINAK:

1.- Pillosopo baten Pillosopokeriak .....	14
2.- Prailea eta Don Burno.....	20
3.- Gabon-gau bateko oroipenak .....	25
4.- Ijitoen dibortzioa.....	30
5.- Hiru ziri.....	38
6.- Adar-jotzailea.....	45
7.- Peru eta Pedro .....	55
8.- Antzinako ezkontza bat.....	62
9.- Pareja polita .....	69
10.- Ama-alabak .....	76
11.- Aitona eta biloba.....	83
12.- Praisku zaharraren kontu berriak .....	90
13.- Anton zurrut.....	96
14.- Bi ahizpatxoak .....	103
15.- Ijitoak sal-erosian.....	112
16.- Gran burrico.....	120
17.- Auzi bat.....	128
18.- Andre gaztea eta neskazaharra.....	134
19.- Moda zaharra berritua.....	139
20.- Automobilen gauzak.....	145
21.- Sermolaria.....	150



Pedro Migel Urruzuno Salegi ( 1844-1923) Elgoibarren jaioren. Oraindik gaztea zelarik, Nafarroako, Lesakako herrian, denbora-alditxo bat pasa zuen. Apaiz egin zen, eta apaiz zintzoa eta umoretsua. Bizitza osoa bi herri hauetan igaro zuen, Elgoibar eta Mendaro. Mendaron hil zen " Agustinetan " kapelau zegoelarik.

Beti euskeraz idatzi zuen, ipuinak, bertsoak, eleiz-kantak eta abar... Urruzuno bere garaiko apaiz bat zen eta bere iritziak ere garai hartakoak dira. Beraz, ez ditzagun juzgatu gaurko ikuspegitik.

Eguneroko bizitzan aurkitu zuen gaia umorearentzako, gauza farregarriak, pertsonai berexiak... Herriko jende xumearentzat idatzi zuen, ahotik-ahora ari balitz bezela, beraz, euskera errezean. Ipuinak ulererrazak eta umorez beteak dira.

Ia bada, zure ezpainetan ere irrifarre gozoa sortzen duten.

Pedro Migel han dago  
zerutik begira,  
nola ote dabilen  
mundu-hontako jira;  
ipuin eder hauek  
hain politak dira,  
Ai! Zure bihotzean  
sartuko balira!

Zabaldu nahirik orain  
bere ohorea,  
horra, liburuxka hau  
nahiko dotorea.  
Honek, berez egingo  
duen faborea,  
gazteengan berpiztu  
Lehengo umorea!!!

" Izazpik"

ISBN 84-89080-89-5



9 788489 080898

TXIRRITA  SAILA